

E I B A R

Hedadura: 24'5 Km2

Biztanlegoa: 32.363 biztanle

Jaiak:

- Herrikoak: Ekainaren 24ean, San Juan.
- San Andres: Azaroaren 30ean. Bertako festa hainbat ospakizunekin.
- Aginaga: Irailaren 29an. San Miguel.

- Arrate: Irailaren 8an. Ama Birjinaren Jaiokundea edo Arrateko Ama Birjina. Gaur egun irailaren bigarren asteburuan ospatzen da.

Eibar udalerria Gipuzkoako mendebaldean lekutzen da, Bizkaiarekiko mugan. Gipuzkoako ertaroko hiribilduetan Eibar izan da beti muturrean egon direnetarik bat. Sortu zenetik 1794era arte, gudu-talde frantsesak eraso egin zion arte, hazkuntza prozesuari eutsi zion herriak. Azitain elizateko biztanleen ekimenez eman zien, 1346an, Alfonso XI. Erregeak, biztanlegune berria eraikitzeko baimena. Eibarko San Andres monastegiaren lurretan, lusoko Markina auzoan eraiki zen. San Andresko Villanueva izena ezarri zitzaion, nahiz eta XV. mendeaz geroztik besterik gabe Eibar izenez ezagutu zen. Antolaketarako baliabide gisara Logroño Forua eman zitzaion.

Hirigunea egurrezkoa izan zen hasiera batean, hesia eta gotorlekuak izan ezik. San Andres eliza inguruan poliki tajututako sei kale zituela sortu zen. Ermua, Elgeta, Bergara eta Elgoibarrera zihoazen Errege Bideek osatzen zuten hiribildua zeharkatzen zuen bide-sarea. Sarrera eta irterak harresian zabalduko hainbat ataurretan zehar egiten ziren. Berehalaxe sortu ziren bide ingurueta-ko auzuneak. Handik motzera ailegatu zen harriz egindako eraikuntza, herria XV. mendetik aurrera berregin zelarik.

Artesautza aribideak armagintzan aurkitu zuen industri-hedapenerako sektore proposa, eta Soraluzerekin batean kainoi, fusil eta armagintzaren burutza izan zuen.

Egoera hauek izan zuten eraginik hirigarapenean, eta honela handikien eraikuntza ugari, familia ospetsuen sorteri, zerbitzu publiko bikainak e.a. izanez.

.Hedapenaldia eten egin zen gudu-talde frantsesekiko borroken ondorioz. Handik




Udaletxea.

mendebetera oraindik etxetar ugari hutsik zegoen herrigunean. Industri-iraultzaren eskutik etorri zen birloraketa, Eibarren iadanik jorratua zegoen eremua aurkitu bait zuen artesautza sailean, maila gorenekoa eta suzko-armagintzan tradizio latza izan zuena.

ladanik mende honetan, aipagarria da herri hau izatea II. Errepublikak aldarrikatu zen lehen hiria.

Trenaren etorrerak ere komunikabide bikainak bideratu zizkion ia-ia inguruko lurralde guztiek: Araba, Gipuzkoa, Bizkaia e.a.

Atzera arazoek eta zehazki Espainiako Gerrate Zibilak sekulako hondamenak eragin zituzten herrian, ertaroko jatorria zuen biztanlegune-atal handi bat suntsituaz. Lur jota-ko hirien plangintza jarraiki egindako birre-rikuntza-lanak eta hirurogeigarren hamarkadako industri-boomak biztanlegoa. hogeitau urteren buruan milaka pertsonetan haztea ekarri zuen. Gertakari honek egungo itxura aldatu dio. Txirio kaleko eta San Andres Elizako zenbaki ez-pareen espaloia eta beste



zenbait erainkuntza bakun kenduta, gainera-koa garapenezko hiri-plangintzaren arabera gorpuztu da, iraganetik jasotako hiri-tajuketa goitik behera aldatuaz.

HIRIGUNEA


■ San Andres Eliza (*3)

Gurutze latiniarrezko oinplanoa duenez gero, ez da euskal eliza gotikoen sailean sartzen. Halaz ere, hemen ere ageri dira zutabe klasiko ikaragarri garaiak, zut-zutak, Gipuzkoan bakarrak diren kapitel korintiar dotoreek are ederrago egiten dituztela. Gangak gurutzadura aberatsekoak dira eta gilzarrietan erliebe handiak dituzte.

Tenpluak altura bereko hiru nabe ditu, hiru absidetan burutzen direnak, poligonalak erdikoak eta angeluzuzenak alboak. Hegoaldeko bigarren zatiko hormetan arku zorrotzeko ate handi bat lekutzen da, gaur egun itxia dagoena; arkuaren alde banatan lehenagoko gurutzadura baten sustraien abiapuntuak ikus daitezke. Ifarraldean taila plate-reskoa duen beste portada bat eta erdi puntuko arkuak duen atea daude.

Eliza berritzeko lanak XVI. eta XVII. mendekoak dira. 1533tik atzera eliza zabaltzeko lanei ekiten zaie. 1603an gurutzadura eraiki eta aldare-aurrea eta aldare nagusia lekuz aldatu ziren. Lanen ardura Hernando Loidi eta Miguel Garaizabalek hartuko dute. 1615 arte lanak etenda egon ziren. 1618an itukinak direla eta, gangak hondaturik, eraikuntza-lanak arriskutan egongo dira; konponketa lanak urteetan luzatu ziren.

Barrenean San Andreren erretaula nagusia ikus dezakegu, Andres Araoz eta honen seme Juan Araozek eginikoa, Errenazimenduko artistak biak ere. Lau atal ditu arretaulak, bankua eta atikoa barne. Erdikoaz gain sei kaletan banatzen da. Horma-konka guz-



Koliseo zinema.



Isasi dorrea.

tiak angeluzuzenak dira, barrenean arku zubitua bana dutela.

■ Aurrez aipatu bezala Txirio kaleko zenbaki pareen espaloia da hiribilduaren ertaroko egituratik gorde den elementu bakarra. Etxeek erabiliak izan diren garai ezberdinetako ezaugarriez gorpuztutako eraikuntza-trilogia azaltzen dute. Atzekoaldeak eutsi dio ongien iraganean hain usu izan zen itzurari. 6. zbk.an Toribio Etxeberrria bizi izan zen, udalerriko politika eta kultur bizimoduari estu-estu lotu zitzaion gizasemea.

■ Isasiko dorretxeak (15-14) eta (*1) tente dirau oraindik ere Ermuarako Errege Bide zaharraren alboan. Hiriak izan zituen jauretxeetarikoa bat da. Erdi puntuko portada ikusgarria du, erdian armari eder bat duela.

■ Aldatzek (*4) Isasik duen jauretxe tanke-berbera du baina barnean eskola bat egin dutenez gero, etxea oso berritua dago. Armariak, oraindik ere, etxeak izan zuen handizki iragana ekartzen du gogora.

■ Kortazar etxegileak 1903an egin zuen Udaletxea (*2) eta enparantza zabal batean lekutzen da.

Oinplano angeluzuzenakoa eta hiru solairutako eraikuntza da. Fatxadako elementuak modu simetrikokoan tajaturik ageri dira. Arkupea du eta frontoiak egiten du buru. Barren aldean erdiko patioa da aipagarriena.

■ Ariurri historiko-monumentala duen eraikuntza sail urria nolabait orekatzearren edo, herri honetako erdigunean arkitektura modernoaren eredu diren hainbat adibide adierazgarri daude, horien artean aipagarriena Coliseo Zinemaren etxea (15.14).



Egiguren baserria.

■ Armen Museoa

Herri honen industria ezaugarritzen duenaren garapena ezagutaraztera emandako Museo honetan, XVIII., XIX. eta XX. mendeetako ereduak aleak azaltzen dira. Suzko armen eta artesau-lan honi loturiko gauzen bilduma, Armagintza Eskolako aretoetan (*5) daude ikusgai.

UDALERRIA

Landa inguruneak hobeto eutsi die testigantza historikoei, hiri hedakuntzak ez bait du halako eraginik izan honengan. Hirigune inguruetan, mendi-geografia nagusi dela eta, zenbait baserri sail bizirik eta hainbat basiliza biltzen dira.

■ **Arraie**

Arrateko Santutegia (16-7) da ezagunena. Jatorri ezezaguna du, nahiz eta Elgoibarrera doan bazterbide batean lekutua egoteak iragan oso antzinakoa adierazten duen.

Baseliza honen ospeak oso urrutiko bideak jorratu ditu eta ohizkoa Zen oraindik ere irailaren 8an egiten den erromeriara Araba eta Bizkaitik jendea bertaratea.

Nabe bakarreko eliza handia da. Fatxada nagusia arkupetua dago eta XVIII. mende erdi inguruko kanpandorra da.

Barrenean Ama Birjinaren taila interesgarria dago, Zuloagaren pintura batzu, sortzez hiri armagilekoa den pintorea, eta sapaiko kasetoiduratik marine baten irudia dago zintzilik.

Arrateko gainera, inguruko mendiek osatzen duten paisaia ikusgarria eskaintzen du.

Okondiako San Pedro basiliza (15-5) Elgoibarrera doan oinbide inguruan lekutzen da. Nabe bakarreko eraikuntza da, erdi puntuko portada xumekoa. Sarrera ondoan dagoen idazkiak diotenaren arabera etxea 1800. urtean berritua izan zen.

■ **Mandiola**

Arrateko inguruetaraino iristen diren hainbat baserrik osatzen dute gune hau, eta baita basiliza batzuk ere. Baserrien artean gehien gailentzen direnak honako hauek dira: Gisasola (15-8), armarría duen oinetxea da, 1617koa; Barrenetxe (16-9) eta Mandiola azpikoa, hau ere oinetxea; sarrera-atarian dagoen idaztiaren arabera etxea 1818an berregin zuten.

Magdalena basilizak (15-6) oinplano angeluzuzena du; litekeena da ibiltarientzat antzinako ospitalea izatea. Eraikuntzak duen atalik zainduena erdi-puntuko arku da.

Bestetik Santa Krutz (15-7), Eibarko ibarraren ikuspegi ederra eskaintzen duen goigune batean lekutzen da. Neurri txikitakoa da eta itxura guztiz apalekoa. Hemen ere, portadak erdi puntuko arku da.



San Andres elizaren portada.



Sagartegieta baserriaren portada.

► Aginaga

Aginaga auzoa, Markinatik gertu dagoen Ego ibarraren aurre-aurreko tontor-sailari atzea emanda kokatzen da.

Bi baseliza eta zenbait baserri osatzen da. Udalerrian gutxien hondatutako gizagunea da gainera.

San Miguel eliza da eraikuntza nagusia (15-1); oinplano angeluzuzenekoa da, dorrea eta erantsitako arkupea dituela.

Auzo berean lekuturik dagoen San Roman baselizak (15-3) ez du arkitektura-ezaugarri aipagarriarik. Nabarmenena sarre-rako erdi puntuko arku da.

Aipatu ditugun bi eliz-eraikuntza hauen arteko erdibidean Suinaga baserria (15-2) kokatzen da; XVIII. mendeko baserri arkitekturaren eredu bikaina dugu. Fatxadako idaztiaren arabera, oinetxea izan Zen.

Arando Aurtena eta Arando Barrena baserriek (15-4) egoitza-etxe bihurtu arren, jatorrizko arkitektura-eitearieusten diote.

► Azitain

Udalerrian historikoki garrantzirik handien duen gunea dugu. Aspaldian bazter-utzitako komunikabide bati lotua azaltzen da, Elgeta eta Arrate bat egiten zituena. Dagoen kokagunetik Ego ibaiaren gaineko igarobidea kontrolpetzen Zen. Dorretxea gaur egun La Salleko ikastetxea den tokian zegoen. Etxea, oso berriztua (16-14), gorde da, eta baita arruntak ez diren botanika-ereduak dituen parkea ere. Dorretxea Untzetako gazteluari uzartu izan zaio; bertako biztanleak Alfonsito X. gaztelako erregeari aurka jarri zitzaizkion.



San Roman baseliza.

Ibarraren barrenaldean dagoen eliza Ama Bijinari emana dago. Oinplano angeluzuzen eta nabe bakarrekoa da. Eraikuntzak ez du garai batean Eibarko lehen biztanlegu-nearen sorleku izan zen antzinako baseliza-ren testigantzarik gorde. Badu halere, garrantzia handirik herriaren bizitzan, irailean egiten den usadiozko erromeriak halaxe aditzera ematen duen legez.

Antzinbideak Arrate aldera egiten du, ibar itxuragabetu batean zehar. Orbe (15-10) eta Eskaregi (15-11) baserriek, Arrateko santutegira doazen ibiltariak oraindik erabiltzen duten bidexka hau mugatzen dute. Lehengoak ojiba-arkuzko atearte baten aztarnak gordetzen ditu. Inguruak berri, ulergaitza den muturreraino hondaturik, kontraste ikaragarri itsusia erakusten du. Eskaregik (15-11) ere bebarru itxurako atari polita du. Sarrerako ateburuan ageri den idaztiaren arabera, XIX. mende hasierakoalitzateke.

Inguruetan badira eraikuntza aipagarri gehiago. Untzeta (16-10) XIII. mendeko gunea matxinzalearekin lotu behar litzatekeen armarria du fatxada nagusian. Duen itxura ikusita, oinetxea izan zela antzematen da, Kutunegieta Barrenengua (16-12) izan zen bezalaxe, hiru antzin-baserri sailaren gunea dena. Eredu honetan aipagarriak dira baita ere, San Juan baserria (16-8)-komentua izan zela diote- eta Sagartegieta (16-11). Azkeneko honek, hutsik egon arren handiki-iraganaren ezaugarri adierazgarriak ditu. Egoera berean dago San Martin baseliza (16-13), XVI. mendez geroztik agirietan aipatua eta gaur egun lastategi bihurtua.

● Otaola

Azitain zeharkatzen zuen, eta Soraluze-ko hirigunetik gertura iristen den Sagar Erre-ka ibarrarekin mendi-bidexka baten bitartez bat egiten zuen komunikabidearen beste muturrean lekutzen da. Elgetarekin, egiten du bat. San Salvador baselizak (16-20) azaldu dugun ibilbide honen igarobidea markatzen du. Ia erabat bazter utzia dagoen elizatxo hau, autoz irispiderik ez duena, adierazgarria da duen landa estilo eta itxura ikaragarri xumeagatik.

Auzoko eraikuntza zibilei bagagozkie Egiguren baserria da (16-16) nabarmenena. Itxura militarra ematen dion erantsitako dorrea du eta harrigarria gertatzen da landa-izaera duen halako etxe batean.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiak 1992. urtean argitaratutako
GIPUZKOAKO GIDALIBURU HISTORIKO MONUMENTALA

